

«Inor akordiotik kanpo geratzen bada, bere erabakiz gera dadila»

Iñigo Urkullu • Eusko Jaurlaritzako lehendakaria

Urkulluk «ezberdinen arteko akordioa» nahi du estatutua «eguneratzeko», eta, hasieratik ahalik eta talde gehien arteko adostasuna bilatzearen alde agertu arren, ez du ezinbesteko jo PSE-EEren oniritzia.

Gorka Berasategi Otamendi

Gasteiz

EAJren eta PSE-EEren arteko gobernu koaliziorako itunari esker hautatu berri dute Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkullu (Aloñsotegi, Bizkaia, 1961). Sailburu taldea osatuta hartu du BERRIA, lehendakaritzan, eta 45 minutuz hitz egin du datorren legegaldian heldu asmo dien erronkei buruz.

Gernikako Estatutua berritzeko akordioa lortu nahi duzu legegaldi honetan. EAE subjektu politiko gisa aitortu behar du?

Bai, jakina. Erabakitze eskubidearen alorrean [akordioa lortzeko], errazagoa litzateke proposatzea euskal herritarrek galdetuak izateko eskubidea dutela. Azken batean, erabakitze eskubidea ez dago araututa juridikoki.

«Ezberdinen arteko akordioa» aldarrikatu duzu. PSE-EEK ezinbestean egon behar du ala nahikoa da EAJ, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos ados jartzea?

Akordio hori proposatu zuen EH Bilduk kanpainan, eta nik diot: ez da hasteko modurik onena. Gero ondorioa hori baldin bada, ondo. Baina askoz ere barneratzaila goa da ahalik eta indar politiko gehienak egon gaitzen saiatzea. Inor akordiotik kanpo geratzen bada, bere erabakiz gera dadila.

Akordioa lortuta, kontsulta hitzartu nahi duzu Espainiako Estatuarekin. Katalunian ez da posible izan. Zergatik izan daiteke desberdina EAEn?

Estatu ereduaz gogoeta sakona egin eta pausoak eman beharko litzuzke PPK, baina baita Gortee-tan dauden beste alderdi batzuek ere. Ez da bakarrik Espainiako Gobernuak izan dezakeen jarraera, Gortee-tan eztabaidatu beharreko kontua da. Legegaldi honetan gauzatu beharko litzateke galdeketak egiteko aukera.

Noizko aurreikusten duzu galdeketa?

Nik uste dut posible dela legegaldien lehen erdian autogobernuaren eguneratze proposamena zein izan beharko litzatekeen argitzea, eta, bigarrenetan, galdeketa proposatu eta Espainiako Gobernuarekin hitzartzea.

Bi printzipio uztartzeko beharra aipatu duzu: printzipio legala eta demokratikoa. Ez al da Kataluniako Gobernuak aldarrikatzen ari den gauza bera?

Kataluniako errealtatea desberdina da. Guk egin genuen gure bidea. Eusko Legebiltzarrean kontsulta legea onartu genuen; lege horrek helegite bat jaso zuen Autzitegi Konstituzionalean, eta auzitegiak ebazpen bat egin zuen. Ez dezala inork Katalunia eredutzat jar nire begien aurrean. Badugu eskarmentua, eta horren arabera proposatzen ari gara galdeketa legala; bai ordenamendu legalen aurreikusitako bideetatik edo, Eskozian bezala, bi gobernuen arteko adostasunaren bidez.

Espainiako Gobernuak EAJ eta Jaurlaritzan limurtu nahian dabilela dirudi. Zertarako zaude prest, eskatu bezala, Madrilak autogobernuarekiko «errespetu handiagoa» adierazten badu?

Atal desberdinak dira. Batetik, PP eta EAJren arteko elkarrekin Espainiako aurrekontuei begira dagoen ala ez. Beste kontu bat da Espainiako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremana. EAJk eta PSE-EEK sinatu dugun akordioan esaten duguna da Gernikako Estatutua aurreikusten dituen eskumenak eskuratu behar ditugula eta eskuratutako defentsa egingo dugula.

Espainiako presidenteordeak jarrera aldatu nahi omen di, baina ikusi dugu Justizia ministroak helegitei buruz zer esan duen. Nik ikusi egin behar dut Espainiako presidenteordearen borondatea benetakoa den ala ez.

ETAren indarkeriari zilegitasuna ukatuko dion jarrera argia hartzeko eskatu diozu ezker aber-

izaleari. Rosa Rodero ETAre biktimak berriki esan du, berak ere urrats hori ikusi nahiko lukeen arren, ez duela posible ikusten momentu honetan, eta ez lu-keela nahi eztabaida hori oztopo bihurtzea bakean eta biziki-detzen aurrera egiteko.

Biktima bakoitzak bere gogoeta du. Iraganari buruzko kontakizunari lotuta, badira ikuspegi desberdinak. Batzuek azpimarratzen dute kontakizuna orain egin daitekeela; beste batzuek, beste belunaldi bat edo gehiago beharko direla. Kontakizuna gizarte osoak egin beharreko hausnarketa izan beharko litzateke. Aldiz, hori egin baino lehen, azpimarratu nahi



[Akordioa lortzeko] Errazagoa litzateke proposatzea euskal herritarrek galdetuak izateko eskubidea dutela»

«ETAk pentsatu egin beharko luke [Eusko Jaurlaritzaren armagabetze proposamena] baliagarri ote zaion»

«[Ertzaintzak] Badu ardura [tortura kasuetan], baina ez da zigor judizialik merezi beharko lukeen ezer baieztatatu»

dut hemen indarkeriaren erabilera izan dela helburu politikoak lortzeko, eta indarkeria hori justifikatu egin dela. Beraz, aitortu egin behar da hori ez zela beharrezkoa izan eta injustua izan zela. Oinarri etikoa da.

Badira biktima gisa aitortuak izan ez direla salatzen dutenak, eta Espainiako Estatuak eskubideen urraketan erantzukizunak aitortu behar dituela diotenak. Horrez gain, oraindik ere esku-bideak urratu egiten direla ohar-tarazi dute presoek eskubideen aldeko hainbat elkartet. Egoerak ez al du zaitzen oinarri etikoa buruzko eztabaida?

Onartzen dut korapilo batsortzen duela, baina, zaildu ala ez, norbere borondatean dago horretatik guztiatik askatzea.

Lehentasunen artean, ETAre armagabetzea nabarmenduko nuke, eta horrek ekarriko luke ETAre desagertzea. Horrekin batera, kontakizuna osatzea. Baita eragindako min injustuaren aitortpena ere. Beharrezkoa da espetze politika desberdin bat. Korapilo oso hori askatu behar dugu, baina norberak urratsak egin behar ditu horretarako.

Joseba Egibarrek (EAJ) esana du, torturari buruz: «Aitortzen dut pertsona eta arduradun politiko gisa ez dudala erantzun une haietan erantzun behar nuen bezala». «Isildu egin naiz».

Behin eta berriz egiten ditugu horrelako gogoe-tak. Legebiltzarkide izan nintzenez, giza eskubideen batzordeko presidente izan nintzen, eta torturak jasan dituzten pertsonen testigantzak entzun genituen. Orain baino askoz ere lehenagotik aritu gara lantzen gaia legebiltzarrean, eta adierazpenak egin ditugu. Aldiro, ongi dago horrelako gogoetak egitea.

Jaurlaritzan txosten bat prestatzen ari da tortura kasuei buruz, eta baieztatuta egin da Ertzaintzak baduela erantzukizunik.

Badu ardura, baina ez da baieztatuta zigor judizialik merezi beharko lukeen ezer. Orain arteko memorieta jasotzen dena da praktika batzuk izan direla galdeketak egiteko orduan, baina inola ere ez giza eskubideak urratzen dituztenak, torturaren gisakoak. Ertzaintzaren jokabidea eredugarria izan da beti.

Autokritikarik aurreikusten al du Eusko Jaurlaritzak?

Bai. Etengabe egin ditugu. Biktimak ahaztu egin ditugula aitortu

dugu, adibidez. Eta ez da egiten dugun lehenengo aldia. Baita torturari lotuta ere. Ertzaintzak berak parte hartu du EHUKo udako ikastaroetan, gaiari buruzko jardunaldietan. Ertzaintzaren buruak ere egin ditu aitortpenak eta adierazpenak.

Presoen gaiari dagokionez, EAJ-PSE-EE akordioa Madril «hertsatu» beharrez mintzo da. Pisu handiagoa hartu beharko luke kartzela politikaren inguruko salaketa publikoak?

Salaketa publikoak behin eta berriz egiten ditugu. Horrez gain, presoak gerturatzeko proposamenak onartu dira legebiltzarrean. EAJ eta PSEren arteko akordioan jaso dugu, eta duela hogeit urte legebiltzarrean geundela proposatu genuen gerturatzeko plan bat. Plan hori Mayor Oreja [orduko] Barne ministroari azaltzera joan ginen Madrilera. Hainbat adierazpen egin dira Jaurlaritzaren aldetik, aurreko legegaldietan. Hori guztia azaldu diegu bai Sare-ri, bai Etxerat-i, bai Foro Sozialari. Alderdi politiko guztiek dakite nik Espainiako presidenteari zein proposamen aurkeztu diodan.

ETAren armagabetzerako proposamena berretsi du Jaurlaritzak. Egingarria da, Espainiak eta Frantziak jarreraz aldatzen ez badute?

Nik baietz uste dut. Espainiako presidenteari eta Frantziako Gobernuaren ordezkariari aurkeztu diegu plana. Nazioarteko eragile eta ordezkariak, eta Foro Sozialari ere azaldu diegu. ETAk pentsatu egin beharko luke baliagarri ote zaion. Bitartekari izateko geure burua eskaini diegu Espainiako Gobernuari ere. Juridikoki eta legalki, banaiz Espainiako Estatuaren ordezkaria. Bide bat izan daiteke. Ez naiz esaten ari horrek beharko lukeenik bide bakarra.

Espainia eta Frantziako gober-nuek armagabetzea ez oztopatzearabaki beharko lukete.

Jakina.



«Ez dut uste
'Euskal Y'-aren
kontrako
ahots gehiago
dagoenik»

G. Berasategi Otamendi *Gasteiz*

Euskara, AHTa, *fracking*-a... Gizarte eta ekonomia gaiak ere jorratu ditu Urkulluk BERRIAREKIN, kupoaren kitatzetik hasita.

Bihar bilduko dira Ogasun sailburu berria eta Espainiako Ogasun ministroa. Posible da kupoaren kitapena adostea?

Ez da ezer aldatu. Kupoaren eztabaidan, ez da bakarrik arrazoia norik duen, baizik eta akordioarako borondate politikorik baden. Ezin gara gotortu teknikariek esaten duten horretan. Ez da PPri soilik dagokion erantzukizuna, PSOEri ere bazegokion eta.

Gizarte Segurantzaren kudeaketarako eskuduntza galdegin duzu. Nola jaso eskumena, eta, aldi berean, kutxa bakarra ez apurtu, PSE-EEK eskatu bezala?

Eztabaida PSE-EEK planteatzen duena baino askoz sakonagoa da. Gizarte Segurantzaren sistema bideragarria da? Nolanahi ere, estatutuan aurreikusita dago eskuduntza. Batzorde mistoaren formula da defendatzen duguna.

Gero eta ahots gehiagok diote Euskal Y-a planteatuta dagoen moduan ez dela errentagarria, ez ekonomikoki, ez sozialki, ez energetikoki. Proiektua berriz aztertuko al du Jauriaritzak?

Ez. Ez dudalako uste lehen baino ahots gehiago daudenik. Badira kanpainak. Euskal Y-a ez da Eusko Jauriaritzaren kontu bat; Espainiako Gobernuaren eskuduntza da, eta gizarteak hori ondotxo daki. Ez dezagun ahantz nahita. Europako Batasuneko garraio sarean lehentasuna duen proiektua da, eta harekin lotzen gaitu.

Subilla Gasteiz ondoan gasa ote dagoen ikertzeko zundaketa egingo du SHESAk (Armentia 2). Zein egoeratan dago? Noiz espero duzue hastea?

Ezingo nizuke esan. Orain arte onartu den sistema arautua erabiliko da, eta ez *fracking* sistema. **Zer sentitu zenuen PSE-EEK euskarari buruz kanpainan zabaldu zuen bideoarekin?**

Atsekabea sentitu nuen. Nola izan daiteke horrelako ikuspegia geroz eta elebidunagoa den erkidego batean? Askok hitz egin dugu, eta egokitzapenak izan daitezke, baina aurrera egiteko, ez atzera.